


BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JUAN RAFAEL ALDAY. KUTXATEKA. ALDAY FUNTSA

AMARA ZAHARRA HONDARTZA ZENEKOA

XIX. mende amaiera. Donostia, handitzen ari zen. 1863. urtean harresiak bota zituzten, eta urtebete geroago, Paris-Madril ferrokarrila iritsi zen. Hiriko espazioa padurari koska egiten ari zitzaion, eta eraikuntza berriek hiri berria zekarten. 1895. urtean Amarako zabalgunea egiteko proposamena egin zitzaion Udalarari, eta urte horretan bertan jarri zen martxan trena Easo plaza-tik. Irudian, haur batzuk hondarretan jolasean, gaur egun Amara Zaharra auzoa dagoen tokian. Atzean San Bartolome muinoa ikus daiteke. Argazki hau Juan Rafael Aldayk atera zuen, lanbidez arkitektoa eta zaletasunez argazkilaria zenak. 1909. urtetik aurrera Donostiako Udalean arkitekto lanetan aritu zen, eta hark eginak dira, esaterako, Kontxako baranda, Easo kaleko udal eraikuntza, kontserbatorioa, erlojuak eta Bretxako arrandegia.